

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Julita Iturri Arrien

*Errigoiti,
Bizkaia
(1924-2005)*

Aurkibidea



Biografia



Errigoitiko Zabale auzoko Zabalbeazkoa baserrian jaio zen 1924. urteko otsailaren 21ean, eta hantxe bizi izan zen, mendian, naturan bertan. 1968.urtera arte ez zen autoentzako biderik egin. Gurasoak ere errigoitiarrak zituen. Ama, Klaudia Arrien Garai, Zabalbeazkoa baserriko oinordekoa, erlijioak pisu handia zeukan familia batekoa. Aita, Antonio Iturri Erezuma, Errigoitiko Uria auzoko Antzuene baserrikoa, ezkondu aurretik Ameriketara 7 urte egindakoa, soinua jotzen eta idi-probetan bere anaia Leonekin ibili zalea.

Julita jakin-min handiko emakumea izan zen bere bizitza osoan zehar. Gustu-gustukoak zituen eskola kontuak, ikastea, jakitea, munduan gertatzen zenaz informatuta egotea... Magisteritza ikasteko gogoia izan zuen, baina guda zibilak bere norabidea aldatu zuela kontatzen zuen. Josten ikasten ibili zen Bilboko Adrada akademian, eta gero josten irakasten jardun zuen Errigoitiko bere baserrian bertan. Baserriko lanetan ere jardun zuen gogor bere nebekin batera.

Harremana mantendu zuen bizitza osoan zehar Ameriketara joan ziren aitaren anai-arreba eta haien seme-alabekin. Senatari izatera iritsi zen Tony Yturri lehengusua eta haren emaztea, eta lehenago honen aita Domingo Yturri bisitan etortzen ziren Errigoitira. Familia maite zuen eta familiari buruz hamaika istorio kontatzen ditu.

Zintak

EGT-007

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Data:**
- **Iraupena:** 87 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Emalea:** Elorriaga Iturri, Yolanda

EGT-008

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Data:**
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Emalea:** Elorriaga Iturri, Yolanda

EGT-009

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Data:**
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Elorriaga Iturri, Yolanda

EGT-010

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Data:**
- **Iraupena:** 8 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Emalea:** Elorriaga Iturri, Yolanda

EGT-011

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Data:**
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Emalea:** Elorriaga Iturri, Yolanda

EGT-012

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Data:**
- **Iraupena:** 4 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Emalea:** Elorriaga Iturri, Yolanda

Pasarteak

1. Hamaika neba-arreba eta baserri txikia

- **Erref:** EGT-010/001
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Julitaren aita Errigoitiko Urikoa izan zen. Hamaika neba-arreba izan ziren. Aita hargina euki zuten, etxetik kanpo egiten zuen behar harriak labretan, eta andrea bakarrik etxean lanean, baserri txikian. Hamaika neba-arreba hazteko diru asko behar, eta neba-arreba zaharrenak gazte-gaztetatik neskame eta morroi joan ziren. Leonarda eta Magdalena Bilbora neskame. Magdalena gero irakasle egin zen "Artes y Oficios"en. Eta Domingo morroi joan zen Errigoitiko Katalina auzora.

2. Gosea, pernila eta katua

- **Erref:** EGT-010/002
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:01:44. **Bukatu:** 00:02:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Domingo morroi zegoen baserrian ugazabak pernila gatzun-askan eukiten zuen, eta eurei eman ez. "Nik hori nozonoz jangot ba, nik jango dot hori egunen baten ba, zuek sobran daukazue hori eta!" bere buruari esaten ibiltzen zen Domingo. Ugazaba Gernikara joan zen baten, pernila gatzun-askatik atera, sartenean egin, eta jan egin zuen Domingok. Baserrian katu bat euki ei zuten, eta "pernila katuak jan dauala sinestuta iminiko dot ugazaba" pentsatu zuen Domingok, eta halantxe egin zuen. Ugazabari Gernikatik etorri zenean esan zion: "Hemen ez dakizue zer paseu dan gaur! Horrek katuek pernila atrapau gatzun-askatik eta jan dauz danak!", eta ugazaba sinistuta ipini zuen.

3. Osaba Domingoren abentura Ameriketara eta Ameriketara

- **Erref:** EGT-010/004
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 00:03:08. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Domingo Begoñako baserri baten egon zen hurrengoan morroi. Han soloan beharrean ebilela itsasontziak ikusten ei zituen Bilbora etortzen. Nora joango

ote ziren galdetzen zion bere buruari. Portura joanda, batzuk Ameriketara joaten zirela jakin zuen, eta Ameriketara zeintzuk eta noz doazen jakin eta halako baten Ameriketara zihoan itsasontzi baten ostu zen. Itsasoratu zirenean, deskubritu egin zuten, eta zergatik egin zuen hori galdetu zioten. Etxean hainbeste neba-arreba izan direla eta berak nonbaitera irten behar izan duela azaldu zien. Kapitainak ondo hartu ei zuen Domingo, mutil espabilatutzat hartu eta patatak zuritzen ipini zuen. Domingo guztiz pozik zegoen lan egiteko. Kapitainari gustatu egin ei zitzaizkion bere egikuneak eta bere izakunea, eta bere alabarentzat be gura zuen. Bera morrosko majoa ei zen. Baina Domingok bere artean pentsatzen zuen: "Lurre atrapetan dotenien, zure alabie hor geratuko da!". Eta halantxe egin zuen, itsasontzia Ameriketara heldu eta Domingok lurra harrapatu zuenean, ihes egin zuen. Eta laster aurkitu zuen nortzukin eta, euskaraz edo erdaraz, zertara ulertu. Lehenengo mendian artzain egon zen, eta han dirua egin zuenean, herrira jaitsi eta herrian ostatua jarri zuen, jateko eta lo egiteko ostatua. Errigoitira eta egiten zituen bidaiak, eta andre euskaldunarekin ezkondu zen (Maria Elorriaga Zavala. Julitak Sopolakoa zela dio, baina Laukizen jaiotakoa zen). Lau seme-alaba euki zituen berarekin: Juanita, Lolita, Luis eta Tony (Tony Yturri, Ameriketako senatari izan zena). Maria andrea gaixoaz gaztetan hil zitzaion Domingori eta bigarrenez ezkondu zen, Ameriketara nebarekin zegoen andre euskaldunarekin (Justa Bilbao Arronategi. Julitak Forukoa zela dio, baina Muruetan jaiotakoa zen), eta bigarren andrearekin alaba bat izan zuen Domingok: Irene.

4. Osaba Domingok anaia bi eta lau arreba eraman Errigoititik Ameriketara

- **Erref:** EGT-011/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

Laburpena:

<p>Osaba Domingok anaia bi eta lau arreba eraman zituen gazte-gaztetatik Errigoititik Ameriketara. Anaiak: Antonio (Jullitaren aita) eta Gregorio, Gazte ezizenez esaten ziotena. Eta arabak: Fermina, Gabriela, Eustakia eta Liboria. Liboria gaztetan hil zen Ameriketara bertan, ezkongabe, gaixorik zegoen eta moja joan gura izan ei zuen. Beste arreba guztiak euskaldunekin ezkondu ziren Ameriketara bertan.</p>

5. Aita Delamarreko urre meatzeetan lanean eta Domingo anaiaren ostatuan apopilo

- **Erref:** EGT-012/002
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:00:06. **Bukatu:** 00:01:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Bestelako lanak diasporan
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

Laburpena:

<p>Antonio (Julitaren aita) Ameriketara lehenengo mendian egon zen lanean,

artzain, baina gero Delamarreko urre meatzeetan lan egiteko jaitsi zen menditik, eta orduan Domingo anaiaren ostatuan egon zen jan eta lo egiten. Urre meatzeetan zaldien laguntzaz ateratzen zuten urrea bagoietan. Antoniok zaldiek eurek baino indar gehiago egiten zuen, askotan zaldiek atera ezin eta berak egiten zuen bagoia ateratzeko besteko indarra. Meatzetik irtetean "errekistoa" (miaketa) edukitzen zuten, inork urre pepitarik gorde ez zezan.</p></div>
<div data-bbox="289 200 854 217" data-label="Section-Header">
<h2>6. Aita eta oherakoan errezuak egiten zituen lekeitiarra</h2>
</div>
<div data-bbox="329 229 763 276" data-label="List-Group">

• **Erref:** EGT-012/003
• **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:01:27. **Bukatu:** 00:02:11
• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

</div>
<div data-bbox="289 288 364 303" data-label="Section-Header">
<h3>Gaia(k):</h3>
</div>
<div data-bbox="329 315 874 378" data-label="List-Group">

• Diaspora » Lana diasporan » Bestelako lanak diasporan
• Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
• Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

</div>
<div data-bbox="289 391 392 405" data-label="Section-Header">
<h3>Laburpena:</h3>
</div>
<div data-bbox="289 406 894 517" data-label="Text">
<p><p>Antioniorekin (Julitaren aitarekin) batera lekeitiar bat egon zen Delamarreko urre meatzeetan lanean eta Domingoren ostatuan apopilo. Lekeitiarra diru barik ibiltzen zen, irabazten zuen guztia gastatzen zuelako, eta Antoniori 6.000 errearen mailegua eskatu zion. 6.000 erreale orduan diru asko zen. Lekeitiarrak, ohera joatean, aitaren eta errezu asko egiten zuenez, Antoniok 6.000 erreale eman zizkion, gero itzuliko zizkiolakoan, baina ez zion dirua itzuli.</p></div>
<div data-bbox="289 540 515 556" data-label="Section-Header">
<h2>7. 6.000 errearen zain</h2>
</div>
<div data-bbox="329 569 763 617" data-label="List-Group">

• **Erref:** EGT-012/004
• **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:02:11. **Bukatu:** 00:04:00
• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

</div>
<div data-bbox="289 629 364 644" data-label="Section-Header">
<h3>Gaia(k):</h3>
</div>
<div data-bbox="329 655 874 686" data-label="List-Group">

• Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

</div>
<div data-bbox="289 698 392 713" data-label="Section-Header">
<h3>Laburpena:</h3>
</div>
<div data-bbox="289 715 884 905" data-label="Text">
<p>Antonio Ameriketara 7 urte eginda itzuli zen Errigoitira eta Zabaleko baserrira ezkondu zen Julitaren amarekin (Zabaleko Klaudia Arrien Garai). Errigoitin zahartzaroan ere Antoniok oraindino buruan zituen lekeitiarrak zor zizkion 6.000 errealak, eta behin Errigoitiko medikuak, Don Mariok, Gernikan amerikano batek beragatik galdetu zuela eta berarekin egoteko gogoa zuela eta amerikano harekin egoteko Gernikara berak eramango zuela esan zionean, Antoniok 6.000 errealak zor zizkion lekeitiarra izango zela pentsatu zuen, eta lekeitiarra dirua itzultzeko zetorkiola. Baina etxeok iragarri zioten moduan, ez zen hala izan. Etxera heldu zenean, ea nor izan zen amerikano hori galdetu zioten etxeok barreka. Beste lagun bat izan zela erantzun zion Antoniok, eta etxeok barreka erantzun: "Bai horixe! Ez ha 6.000 erreale zor izan deutsuna ez da izan hori!".</p></div>
</html>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com